

BABA

Vicia faba



JAKIN BEHARREKOAK

Ekialde Hurbilean du jatorria baina nekazaritzaren etorrerarekin bat, mediterraneo aldera zabaldu zen.

Gariarekin batera, **oinarrizko elikagaia izan da mendeetan zehar.**

Kuzinatuta nahiz gordinik jan daitezke, batzuk leka eta guzti ere bai. Ganadua elikatzeko ere erabiltzen dira.

Garrantzitsuak dira, **udaberri hasieran jan ahal diren barazki bakanetakoak** baitira, ilarrekin batera.

LABORANTZA

- Hotza gustuko duten landareak dira eta ez dute onartzen gehiegizko beroa, beraz, **udazken bukaera edo neguan ereiten dira.**
- Gure zonaldean, **urtarrila ondoren ereitea aholkatzen dugu**, modu honetan ez baitituzte jasan beharrik negu garaiko egunik gogorrenak. [Ikusi nola erein babestutako hazitegian](#)
- **Ilaretan edo kolpeka ereiten dira**, kolpe bakoitzean 3-4 hazi boteaz eta 5-6 zentimetro lurperatuz. Lehenago ernetzea nahi badugu, erein baino 24 ordu lehenago uretan beratzen jarriko ditugu.

ONGARRIZTATZEA

- Lekarien familiakoa izanik, baktería nitrifikatzaileen laguntzaz, **airean dagoen nitrogenoa finkatzeko gai dira**, beraz ez dute inongo ongarriztatze beharrik.

GAIXOTASUNAK

- Baba landareetan **zorriak agertzea ekiditea ezinezkoa da**, landare hauek nitrogenoa finkatzeko duten joera dela eta. Hala eta guztiz ere, ez dugu estutu behar. Landareak tamaina egokia lortzen duenean, puntako zatia kenduko diegu behatzekin, bertan egon ohi baitira zorri gehienak, arazoari amaiera emanaz.
- Hori egin ondoren ere, zorriak jarraitzen badute, **jaboi potasikoa erabiliz kontrolatu ahalko ditugu**.

HABA

Vicia faba



DEBES SABER

El haba es **una planta originaria de Oriente próximo** y que con la llegada de la agricultura se extendió por todo el mediterráneo.

Aquí, junto con el trigo, **ha sido alimento básico durante siglos.**

Se pueden consumir cocinadas e incluso crudas, algunas variedades incluso se comen con vaina y todo. También se utilizan para alimentar al ganado.

Tienen mucha importancia, ya que es **una de las pocas verduras que podemos comer al inicio de la primavera**, junto con los guisantes.

CULTIVO

- Les gusta el frío y que no soportan bien el exceso de calor, **por lo que se siembran a finales de otoño e invierno.**
- En nuestra zona, **es más aconsejable sembrarlas después de enero**, ya que de este modo, no sufren tanto con las inclemencias del invierno más duro. [Ver como cultivar en semillero](#)
- **Se siembran en hileras o a golpes**, echando 3-4 semillas en cada golpe, recubriéndolas con 5-6 cm de tierra. Si queremos que germinen antes, las pondremos en remojo 24 horas antes de la siembra.

ABONADO

- Al ser una planta leguminosa, con la ayuda de las bacterias nitrificantes, **son capaces de fijar el nitrógeno del aire en el suelo**, por lo que no necesitan ningún tipo de abonado.

PLAGAS

- **Es inevitable que en la punta de cada planta aparezcan pulgones**, pero no nos preocuparemos por eso. Cuando la planta haya conseguido el tamaño adecuado, le quitaremos las puntas a todas las plantas, ya que es ahí donde se instalan la mayoría de los pulgones.
- Si aun así, el problema persiste, los podremos controlar con una **pulverización de jabón potásico**.